

## JULEN LEKUONA

Julen Lekuona Berasategi 1938ko ekainren 18an sortu zen, Oiartzunen eta 2003ko uztailaren 19an hil zen Donostian 65 urte zituela.

Ttikitatik bertso zahar eta kanturako tradizioa jaso zuen etxean, amaxiren bidez, baina kantuan Oiartzungo Eskola Cantorum haur abesbatzan hasi zen, iganderoko mezan.

Seminarioan solfeoa ikasi zuen, eta bertan sortu zituen bere kantu ezagunetako batzuk. Seminarioko urteak akitu eta apaiz egin orduko Aizpurutxo auzora bidali zuten, Zumarraga eta Azkoitia artean. Ezohikoak ziren bere mezak, gitarraz eta kantuz aritzen baitzen, herritarrekin batera. Julen Lekuonaren lehen kantuak protesta eta salaketakoak ziren, Euskal Herriaren egoerari lotutakoak.

1963an bertan eman zuen jendaurreko lehen saioa, Donostiako Antigua auzoko parrokian. Ondorengo bi urteetan, Lourdes Iriondo, Mikel Laboa eta abarrekin ibili zen han-hemenka kantari, eta segidan Ez Dok Amairu taldean sartu zen. Ez Dok Amairu taldea desegin zenean, Lekuona ere kantagintzatik urrunduz zen.

Kantu ospetsuak: Hamalau heriotzak, Suantsaren bertsuak, Nere sentimendua, Oraingo Errenteriari...

Diskoa: Itsasoan urak handi dire: Julen Lekuonari omendaldia.

Hona emen Julen Lekuonaren kantu bat:

[https://www.youtube.com/watch?v=m\\_XbUDSZcTc](https://www.youtube.com/watch?v=m_XbUDSZcTc)

## LETRA

Nere sentimendua nahi det deklaratu:  
Ameriketan nago hau ezin ukatu; (Bis)  
hemen eginagatik ondo gobernatu,  
horkuaz egiten naiz asko akordatu.

Honuntz etorri nintzan utzirikan ama,  
anai-arrebak eta familia dana; (Bis)  
egitiagatikan desio nuena,  
geroztik triste nago, ai! nere barrena.

Hamazazpi urtetan banuen segira:  
neska gazte guztiak neroni begira; (Bis)  
lurrik ikutu gabe, gorputzari jira,  
orduak arintasunak asentatu dira.

Gorputz ederra nuen, dantzari arina,  
bainan ez da izaten betiko egina; (Bis)  
orain eginagatik hemen ahalegina,  
ez gera libertitzen orduan adina.

Horko bizimoduaz oso aspertuak,  
onerako ziraden gure desiuak; (Bis)  
orain etxera berriz emanik pausuak  
hemen bizi gerade erdi-mudatuak.

Despedida dijua sei bertso hoiekin,  
anaia konformatu horrenbesterekin; (Bis)  
nere gustua hau da, nahi badezu jakin:  
beste horrenbeste jarri, aio Joxe Juakin. (Bis)

Egileak: Xabat Maritxalar eta Olaia Otxandorena

